DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea
Comisión de Servicios a las Personas

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

## 32. AKTA

### Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2026-04-20

**Ordua:** 11:18

**Tokia:** Loretope Aretoa

**Batzordeburua:** Iñaki Gabarain Gaztelumendi

**Etorritakoak:**

**Batzordeko kide diren zinegotziak:**

Idoia Gracia Monge *(11:21ean bertaratu da)*

María Jesus Idoeta Madariaga

Martin Ibabe Eceiza *(11:53an bilkuratik atera da eta 11:54an berriro sartu da)*

Kerman Orbegozo Uribe *(11:39an bilkuratik atera da eta 11:42an berriro sartu da. 11:50ean bilkuratik atera da eta 11:53an bertaratu da berriro bilkurara)*

Sandra Barrenetxea Diez

Markel Ormazabal Gaztañaga *(11:19an bilkuratik atera da eta 11:23an berriro sartu da)*

Izar Hernando Ibero

Iñigo García Villanueva

Vanesa Vélez de Pablos

Arantza González García

**Beste zinegotzi batzuk:**

Ana López Loiarte *(11:19an bertaratu da)*

**Idazkaria:** Itxaso Valero Izagirre, Idazkariak eskuordeturik.

## ACTA N.º 32

### Comisión de Servicios a las Personas

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 20-04-2026

**Hora:** 11:18

**Lugar:** Sala Loretope

**Preside:** Iñaki Gabarain Gaztelumendi

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas miembros de la Comisión:**

Idoia Gracia Monge *(se incorpora a la sesión a las 11.21 h.)*

María Jesús Idoeta Madariaga

Martín Ibabe Eceiza *(se retira de la sesión a las 11:53 h. y se reincorpora a las 11:54 h.)*

Kerman Orbegozo Uribe *(se retira de la sesión a las 11:39 h. y se reincorpora a las 11:42 h. A las 11:50 h. se retira de la sesión y se reincorpora a las 11:53 h.)*

Sandra Barrenetxea Díez

Markel Ormazabal Gaztañaga *(se retira de la sesión a las 11:19 h. y se reincorpora a las 11:23 h.)*

Izar Hernando Ibero

Iñigo García Villanueva

Vanesa Vélez de Pablos

Arantza González García

**Otros/as concejales/as:**

Ana López Loiarte *(se incorpora a la sesión a las 11:19 h.)*

**Secretaria:** Itxaso Valero Izagirre, por delegación de la Secretaria General.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

**1.- 2026ko martxoaren 16an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

Bozketa egin eta aho batez onartu da 31. akta, 2026ko martxoaren 16an egindako bilerari dagokiona.

**2. – Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, Ekintza Ikastolan hezkuntza afektibo-sexualeko ikastaro bat bertan behera uzteari buruzkoa.**

*(11:19an Markel Ormazabal jauna bilkuratik irten da).*

*(11:19an Ana López andrea bilkurara bertaratu da).*

Vanesa Velez andreak hurrengo interpelazioa azaldu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Vanesa Vélez De Pablosek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Ekintza ikastolan gertatutakoaren gaineko INTERPELAZIO hau egin behar dio Jon Insausti Martiarena alkateari Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Jakin dugunez, Ekintza ikastolak bertan behera utzi zuen –guztiok jakin ahal izan ditugun arrazoiak direla eta– Samurrak Aniztasuna elkartearen hezkuntza afektibo-sexualari buruzko ikastaroa. Eta elkarte horrek Udalaren dirulaguntza jasotzen du tailer horiek ikastetxeetan emateko.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu-taldeak zergatik ez die gainerako udal-taldeei jakinarazi gai horren inguruan zer gertatu den?
2. Gobernu-taldeak badu hori egiteko asmorik?
3. Hala bada, noiz?

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 16 de febrero de 2026.**

Se aprueba por unanimidad el acta número 31, correspondiente a la sesión celebrada el día 16 de marzo de 2026.

**2. – Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la suspensión de un curso de educación afectivo-sexual en Ekintza ikastola.**

*(A las 11:19 h. el Sr. Ormazabal Gaztañaga se retira de la sesión).*

*(A las 11:19 h. la Sra. López Loiarte se incorpora a la sesión).*

La Sra. Vélez de Pablos expone la siguiente interpelación:

"Vanesa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Maisterrena, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre lo ocurrido en Ekintza ikastola.

JUSTIFICACIÓN

Hemos sabido que la ikastola Ekintza suspendió el curso de educación afectivo-sexual por parte de la Asociación Samurrak Aniztasuna, que recibe una subvención del Ayuntamiento para impartir esos talleres en los centros educativos, por los motivos que todos hemos podido conocer.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no ha puesto en conocimiento del resto de grupos municipales lo sucedido con respecto a este tema?
2. ¿Tiene el equipo de gobierno la intención de hacerlo?
3. En caso afirmativo, ¿cuándo?

4. Hala ez bada, zergatik ez?
5. Zer irizten dio gobernu-taldeak gertatutakoari?
6. Zer neurri hartu du gobernu-taldeak horren inguruan?

4. En caso negativo, ¿por qué?
5. ¿Qué opinión tiene el equipo de gobierno sobre lo sucedido?
6. ¿Cuales son las medidas que el equipo de gobierno ha adoptado al respecto?

Donostian, 2026ko apirilaren 2an.

En San Sebastián, a 2 de abril de 2026

Vanesa Vélez De Pablos
Udaleko PP taldeko zinegotzia".

Vanesa Vélez De Pablos
Concejala Grupo Municipal PP".

Iñigo García jaunak eta Vanesa Vélez andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto el Sr. García Villanueva y la Sra. Vélez de Pablos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(11:21ean Idoia Gracia andrea bilkurara bertaratu da)*

*(A las 11:21 h. la Sra. Gracia Monge se incorpora a la sesión)*

*(11:23an Markel Ormazabal jauna berriro bertaratu da bilkurara)*

*(A las 11:23 h. el Sr. Ormazabal Gaztañaga se reincorpora a la sesión)*

**3. – Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, Udalak eskumuturreko jagoleak erosi eta banatzeari buruzkoa.**

**3. – Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la adquisición y reparto de pulseras centinela por parte del Ayuntamiento.**

Vanesa Vélez andreak hurrengo interpelazioa azaldu du:

La Sra. Vélez de Pablos expone la siguiente interpelación:

"Talde Popularreko zinegotzi Vanesa Vélez De Pablosek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Udalak eskumuturreko jagoleak erosi eta banatzeari buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Jon Insausti Martiarena alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertzeko.

"Vanesa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Maisterrena, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre la adquisición y reparto de Pulseras Centinela por parte del Ayuntamiento.

JUSTIFIKAZIOA

Toxikologiako Institutu Nazionalaren azken memoriako datuen arabera, sumisio kimikoa edo spikinga Espainiako 3 sexu-erasotik batean dago.

Eskumuturreko jagole bat gai da edarietan sumisio kimikoko kasuetan gehien erabiltzen diren drogak detektatzeko, eta, gainera, QR kode bat du, geolokalizazio-zerbitzu bat eskaintzen duena.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu Taldeak zergatik ez du aztertu

JUSTIFICACIÓN

De acuerdo con los datos de la última memoria del Instituto Nacional de Toxicología, la sumisión química o spiking está presente en 1 de cada 3 agresiones sexuales en España.

Una pulsera centinela es capaz de detectar en las bebidas las drogas más comunes utilizadas en casos de sumisión química y, además, cuenta con un código QR que ofrece un servicio de geolocalización.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el

eskumuturreko jagoleak erostea, ondoren banatzeko?

2. Gobernu Taldeak ba al du hori egiteko asmorik?

3. Hala bada, noiz?

4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2026ko apirilaren 2a

Vanesa Vélez de Pablos
Udaleko PP taldeko zinegotzia".

Equipo de Gobierno no se ha planteado la adquisición, para su posterior reparto, de pulseras centinela?

2. ¿Tiene el equipo de gobierno la intención de hacerlo?

3. En caso afirmativo, ¿cuándo?

4. En caso negativo, ¿por qué?

En San Sebastián, a 2 de abril de 2026

Vanesa Vélez de Pablos
Concejala del Grupo Municipal PP".

Iñigo García jaunak eta Vanesa Vélez andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto el Sr. García Villanueva y la Sra. Vélez de Pablos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(11:39an Kerman Orbegozo jauna bilkuratik irten da)*

*(A las 11:39 h. se reitira el Sr. Orbegozo Uribe de la sesión)*

**4. – Interpelazioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, udal arreta psikologikoari eta Donostian osasun mentala babesteari buruzkoa.**

**4. – Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la atención psicológica municipal y el apoyo a la salud mental en Donostia.**

Arantza González andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

"Víctor Lasa jaunak, Elkarrekin Donostia Udal Talde Mistoko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 97. artikuluaren babesean, honako INTERPELAZIO hau aurkezten dio, udal arreta psikologikoari eta Donostian osasun mentala babesteari buruzkoa, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi ordezkari María Jesús Idoetari, Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Azken asteetan jakin denez, Gipuzkoako hainbat udal, hala nola Zumarraga, Oñati edo Azpeitiakoak, laguntza psikologikoko udal-programak bultzatzen hasi dira, 14 eta 30 urte bitarteko gazteentzako kontsulten zuzeneko dirulaguntzak barne, bai eta aholkularitza psikologikoko doako zerbitzuak ere, eskaria handitzen ari delako.

La Sra. González García da por leída la siguiente interpelación:

"Dr. Víctor Lasa, Portavoz del Grupo Municipal Mixto Elkarrekin Donostia, al amparo de lo establecido en el artículo 97 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, dirigida a la Concejala Delegada de Servicios Sociales, Dña. María Jesús Idoeta, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas, relativa a las políticas municipales de apoyo a la salud mental y la posible financiación pública de atención psicológica.

JUSTIFICACIÓN

En las últimas semanas se ha conocido que distintos ayuntamientos guipuzcoanos, como Zumarraga, Oñati o Azpeitia, han comenzado a impulsar programas municipales de atención psicológica, incluyendo la subvención directa de consultas para jóvenes de entre 14 y 30 años, así como servicios gratuitos de asesoramiento psicológico ante el incremento de la demanda.

Osasun mentala da, gaur egun, gizarte-erronka nagusietako bat, batez ere gazteen artean. Izan ere, antsietate-, depresio- eta ondoez emozionaleko kasuak ugaritzea profesionalen eta gizarte-erakundeen ageriko errealitatea da. Hala ere, arazo horrek ez die gazteei soilik eragiten, gizarte-zaurgarritasun testuinguruetan dauden helduei ere eragiten die.

La salud mental constituye hoy uno de los principales retos sociales, especialmente entre la población joven, donde el aumento de casos de ansiedad, depresión y malestar emocional es una realidad ampliamente constatada por profesionales y entidades sociales. No obstante, esta problemática no afecta exclusivamente a jóvenes, sino también a personas adultas en contextos de vulnerabilidad social.

Osasun mentalaren arloko arreta sanitarioa osasun-sistema publikoari badagokio ere, udalek, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazio gisa, eginkizun osagarria bete dezakete prebentzioan, babesean eta laguntza psikologikoan.

Si bien la atención sanitaria en materia de salud mental corresponde al sistema público de salud, los ayuntamientos, como administración más cercana a la ciudadanía, pueden desempeñar un papel complementario en la prevención, acompañamiento y apoyo psicológico.

Horiek horrela, hauxe da gure

Por lo tanto, presentamos la siguiente interpelación:

INTERPELAZIOA

1. Donostiako Udalak zergatik ez du orain arte laguntza psikologikoko zuzeneko dirulaguntza edo finantzaketako udal-programarik bultzatu, Gipuzkoako beste udal batzuk egiten ari diren bezala?

2. Gaur egun, zer udal-baliabide espezifiko daude Donostian gazteei arreta psikologikoa ematea errazteko, bereziki 14-30 urteko adin-tartean, bai eta gizarte-zaurgarritasuneko egoeran dauden helduei ere?

3. Udal Gobernuak aztertu al du Donostian bizi diren gazteei laguntza psikologikoa emateko programa espezifiko bat ezartzeko aukera, lurraldeko beste udalerri batzuetan ezarritakoaren antzekoa?

4. Epe labur edo ertainean laguntza psikologikoaren edo osasun emozionalaren arloan udal-neurri berriak abian jartzea aurreikusi du Udalak?

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué el Ayuntamiento de Donostia no ha impulsado hasta la fecha un programa municipal de subvención o financiación directa de atención psicológica, como ya están haciendo otros ayuntamientos de Gipuzkoa?

2. ¿Qué recursos municipales específicos existen actualmente en Donostia para facilitar el acceso a atención psicológica a personas jóvenes, especialmente en el tramo de edad de 14 a 30 años, así como a personas adultas en situación de vulnerabilidad social?

3. ¿Ha valorado el Gobierno municipal la posibilidad de establecer un programa específico de apoyo psicológico dirigido a jóvenes residentes en Donostia, similar al implantado en otros municipios del territorio?

4. ¿Tiene previsto el Ayuntamiento poner en marcha nuevas medidas municipales en materia de apoyo psicológico o salud emocional en el corto o medio plazo? suelos?

Donostia, 2026ko apirilaren 10a

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea".

Donostia, a 10 de abril de 2026

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixtrro Elkarrekin Donostia".

Iñigo García jaunak eta Arantza González andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto el Sr. García Villanueva y la Sra. González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(11:42an Kerman Orbegozo jauna berriro bertaratu da bilkurara)*

**5.– Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Jazzaldiko zuzendaria aukeratzeko esleitu gabeko lehiaketari buruzkoa.**

Vanesa Vélez andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

“Tomás Pascua Martín Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti Maisterrena alkateari Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean, Jazzaldiko zuzendaria aukeratzeko hutsik geldituko lehiaketari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Kulturak duela gutxi iragarri du Jazzaldiaren "aldi baterako" zuzendaria izendatzeko hautaketa-prozesua hutsik geratu dela, prozesua gainditu zuten bi pertsonek ez baitute lanpostua hartu nahi izan. Horrek kezka nabarmena sortu du hiriko kultura-ekitaldi garrantzitsuenetako baten kudeaketaren eta plangintzaren inguruan.

Prozesu hori 2025eko uztailean hasi eta 2026ko martxoan ebatzi zen, eta helburu zuen jaialdiaren zuzendaritza behin-behinean betetzea, hiru urtez hain zuzen, plaza behin betiko betetzeko gerora egitekoa zen lan-eskaintza publikoa (LEP) egin arte. Hala ere, azken emaitzak ikusita, badirudi hautaketa-prozesuaren diseinuan edo planteamenduan akatsen bat izan dela.

Oraingo egoera oso delikatua da; izan ere, Jazzaldiaren 61. edizioa uztailaren 22tik 26ra bitartean egitea aurreikusten da, eta egungo zuzendari Miguel Martinek apirilaren 9an hartuko du erretiroa. Programazioa neurri handi batean itxita badago ere, zuzendaritza argirik ez izateak eragina izan dezake jaialdiaren koordinazioan, kudeaketan eta proiekzioan.

Era berean, prozesu berri bat hasteko iragarritako erabakiak -kasu honetan, prozesua lanpostua behin betiko betetzeko lan-eskaintza publikoaren bidez egingo da-, zalantzak sortzen ditu deialdi berri hori arautuko duten epe, baldintza eta irizpideei buruz, bai eta Donostia Kulturak huts egindako prozesuaz egiten duen balorazioari buruz ere.

*(A las 11:42 h. se reincorpora el Sr. Orbegozo Uribe a la sesión)*

**5. – Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el concurso desierto para la elección del director del Jazzaldia.**

La Sra. Vélez de Pablos da por leída la siguiente interpelación:

“Tomás Pascua Martín, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Maisterrena, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre el concurso desierto para la elección del director del Jazzaldia.

JUSTIFICACIÓN

El reciente anuncio de Donostia Kultura de que el proceso selectivo para la designación de un director “temporal” del Jazzaldia ha quedado desierto, tras haber rechazado el puesto las dos personas que habían superado el proceso, genera una evidente preocupación en torno a la gestión y planificación de uno de los eventos culturales más relevantes de la ciudad.

Este proceso, iniciado en julio de 2025 y resuelto en marzo de 2026, tenía por objeto cubrir de manera provisional, por un periodo de tres años, la dirección del festival, a la espera de una futura Oferta Pública de Empleo (OPE) para la cobertura definitiva de la plaza. Sin embargo, el resultado final pone de manifiesto posibles deficiencias en el diseño o planteamiento del propio proceso selectivo.

La situación es especialmente delicada teniendo en cuenta la inminente celebración de la 61ª edición del Jazzaldia, prevista entre el 22 y el 26 de julio, y la jubilación del actual director, Miguel Martín, el próximo 9 de abril. Aunque la programación se encuentra en gran medida cerrada, la eventual ausencia de una dirección clara puede afectar a la coordinación, gestión y proyección del festival.

Asimismo, la decisión anunciada de iniciar un nuevo proceso, esta vez mediante OPE para la cobertura definitiva del puesto, abre interrogantes sobre los plazos, condiciones y criterios que regirán esta nueva convocatoria, así como sobre la valoración que realiza Donostia Kultura del proceso fallido.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da egoera horretara eraman duten inguruabarrak argitzea eta Jazzaldiaren zuzendaritzan egonkortasuna eta kalitatea bermatzeko Udal Gobernuaren aurreikuspenak ezagutzea.

Hori dela eta, honako interpelazio hau aurkezten dugu:

INTERPELAZIOA

1. Zergatik uste du Udal Gobernuak hautaketa-prozesua gainditu duten bi pertsonek azkenean uko egin diotela jazzaldiko zuzendaritza-lanpostua betetzeari?
2. Zer balorazio egiten du Udal Gobernuak prozesu hori hutsik geratu izanari buruz, hainbat hilabeteetan izapideak egin ondoren?
3. Zergatik erabaki zen, bere garaian, plaza hiru urtez aldi baterako betetzeko prozesu baterako deialdia egitea, Lan Eskaintza Publikoaren bidez behin betiko betetzea erabaki beharrean?
4. Uste al duzue hautaketa-prozesuaren diseinuak (baldintzak, betekizunak, lanpostuaren aldi baterako izaera, ordainsariak, etab.) eragina izan duela azken emaitzan?
5. Prozesu berri bat hasiko al da hutsetik, Lan Eskaintza Publikoaren bidez, plaza behin betiko betetzeko?
6. Zer epetan aurreikusten du Udal Gobernuak prozesu hori onartu, deialdia egin eta ebaztea?
7. Deialdi berrian, mantenduko al dira aurreko prozesuan eskatutako baldintzak, batez ere hizkuntza-eskakizunei, lanbide-esperientziari eta ordainsariei dagokienez?
8. Aurreikusten al da baldintza horiek berrikusi edo egokitzea, lehia handiagoa izan dadin eta prozesuaren arrakasta bermatu dadin?
9. Zein izango da, zehazki, egungo zuzendari Miguel Martínen zeregina, "aholkularia" izango den aldetik, eta zein eginkizun izango ditu aldi horretan?
10. Zer neurri hartuko dira horrelako egoerarik

Por todo ello, resulta necesario esclarecer las circunstancias que han conducido a esta situación y conocer las previsiones del Gobierno municipal para garantizar la estabilidad y calidad en la dirección del Jazzaldia.

Por estos motivos prsentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Gobierno Municipal considera que las dos personas que habían superado el proceso selectivo han rechazado finalmente ocupar el puesto de dirección del Jazzaldia?
2. ¿Qué valoración hace el Gobierno Municipal del hecho de que dicho proceso haya quedado desierto, tras varios meses de tramitación?
3. ¿Por qué se optó en su momento por convocar un proceso para la cobertura temporal de la plaza por un periodo de tres años, en lugar de promover directamente su provisión definitiva mediante Oferta Pública de Empleo?
4. ¿Se considera que el diseño del proceso selectivo (condiciones, requisitos, naturaleza temporal del puesto, retribución, etc.) ha podido influir en el resultado final?
5. ¿Se va a iniciar un nuevo proceso desde cero mediante Oferta Pública de Empleo para la cobertura definitiva de la plaza?
6. ¿En qué plazos prevé el Gobierno Municipal aprobar, convocar y resolver dicho proceso?
7. ¿Se mantendrán en la nueva convocatoria los requisitos exigidos en el proceso anterior, en particular en lo relativo a perfiles lingüísticos, experiencia profesional y condiciones retributivas?
8. ¿Se contempla la posibilidad de revisar o adaptar dichos requisitos para garantizar una mayor concurrencia y éxito del proceso?
9. ¿Cuál será exactamente el papel del actual director, Miguel Martín, en su condición de “consultor”, y qué funciones asumirá durante ese periodo?
10. ¿Qué medidas se van a adoptar para evitar

berriro ez gertatzeko kulturaren arloko zuzendaritza-postuak hautatzeko etorkizuneko prozesuetan?

que una situación similar vuelva a producirse en futuros procesos de selección de puestos directivos en el ámbito cultural?

Donostia, 2026ko apirilaren 8a

Tomás Pascua Martín
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia".

En San Sebastián, a 8 de abril de 2026

Tomás Pascua Martín
Concejal del Grupo Municipal Popular".

Ana López eta Vanesa Vélez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto las Sras. López Loiarte y Vélez de Pablos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(11:50ean Kerman Orbegozo jauna bilkuratik irten da eta 11:53an bertaratu da berriro bilerara)*

*(11:53an Martin Ibabe jauna bilkuratik irten da eta 11:54an bertaratu da berriro bilerara)*

*(A las 11:50 h. el Sr. Ormazabal Gaztañaga se retira de la sesión y a las 11:53 h se reincorpora a la misma)*

*(A las 11:53 h se retira el Sr. Ibabe Eceiza de la sesión y se reincorpora a las 11.54 h.)*

**6. – Galdera, EH Bildu taldeak aurkeztua, Erdialde jubilatuen egoitzako obren inguruan.**

Izar Hernando andreak galdera hau azaldu du:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, galdera egiten dio Maria Jesus Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Erdialde jubilatuen elkartearen egoitza birgaitzeko lanak Udal aurrekontuetan aurreikusiak daude 2025etik, partida plurianual gisa. Martxoan onartu zuen Tokiko Gobernu Batzordeak birgaitze lanetarako lizitazioa, 12 hilabeteko epealdia izango duten obrak martxan jartzeko.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako GALDERA hauek egiten ditu:

- Lizitazioa onartuta dagoela jakinda, lanak noiz hastea aurreikusten da? Elkarteko kideek jakinarazi digutenez irailean hastekoak omen dira lanak; udan jarduera baxuagoa dela jakinda, posible da lanak abuztuan hastea?

**6. – Pregunta, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre las obras del Hogar del Jubilado Erdialde.**

La Sra. Hernando Ibero expone la siguiente pregunta:

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, hace la siguiente pregunta a la concejala delegada de Acción Social, María Jesús Idoeta, para que dé las explicaciones pertinentes en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Las obras de rehabilitación de la sede del hogar del jubilado Erdialde están previstas en los presupuestos municipales desde 2025, como partida plurianual. La Junta de Gobierno Local aprobó en marzo la licitación de dichas obras, que tendrán un plazo de ejecución de 12 meses.

Por ello, la concejala abajo firmante hace las siguientes PREGUNTAS:

- Sabiendo que la licitación está aprobada, ¿cuándo se prevé el inicio de las obras? Según nos han informado las personas miembros de la asociación, esto ocurrirá en septiembre; pero, teniendo en cuenta que en verano la actividad es más baja, ¿sería posible que las obras comenzaran en agosto?

- Lanek irauten duten epealdi osoan (12 hilabeteko epealdian) Idiakez kaleko lokala osorik itxita egongo da, ala zatika erabiltzeko aukerarik izango da? Erdialdeko jubilatuen egoitzaren jarduna aurrera eramateko izango al da beste behin-behineko espaziorik?

- ¿Durante todo el periodo que duren las obras (12 meses), el local de la calle Idiáquez ¿permanecerá cerrado en su totalidad o podrá utilizarse parcialmente? ¿El hogar del jubilado Erdialde dispondrá de otros espacios donde llevar a cabo sus actividades de forma provisional?

Donostian, 2026ko apirilaren 8an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 8 de abril de 2026

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH Bildu".

María Jesus Idoeta eta Izar Hernando andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto las Sras. Idoeta Madariaga y Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**7.- Galdera, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Otorduak programa Altzara zabaltzearen inguruan.**

**7.- Pregunta, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la ampliación del programa Otorduak a Altza.**

Izar Hernando andreak hurrengo galdera azaldu du:

La Sra. Hernando Ibero expone la siguiente pregunta:

"EH Bildu udal taldeko zinegotzi Izar Hernando Iberok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikulua oinarri, galdera egiten dio Maria Jesus Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkariari, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Pertsonen Batzordean.

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH Bildu, presenta, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente pregunta a Maria Jesús Idoeta, concejala delegada de Acción Social, para su respuesta oral en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFIKAZIOA

2026ko Udal Aurrekontuetan finkatutakoaren arabera, orain arte Intxaurrondoko Gizarte Zerbitzuen bulegoan martxan egon den Otorduak programa Altzara eramateko konpromisoa hartu zuen Udal Gobernuak. Horretarako, Aurrekontuetan Intxaurrondoko Otorduak programaren kopurua handiagoa da aurten.

Hori horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako galdera hauek egiten ditu:

- Noiz hasiko da martxan Otorduak programa Altzan? Nola garatuko da programa hau Altzan (Intxaurrondon programa honek dituen berezitasunak kontuan hartuta)?

- Gaur gaurkoz, Intxaurrondon zenbat herritarrek

JUSTIFICACIÓN

Según lo establecido en los Presupuestos Municipales de 2026, el Gobierno Municipal se comprometió a llevar a Altza el programa Otorduak que hasta ahora había estado en funcionamiento en el Centro de Servicios Sociales de Intxaurrondo, para lo que este año se ha aumentado la partida presupuestaria destinada al programa Otorduak de Intxaurrondo.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe formula las siguientes preguntas:

- ¿Cuándo comenzará a funcionar el programa Otorduak en Altza? ¿Cómo se va a desarrollar este programa en Altza (teniendo en cuenta las particularidades de este programa en Intxaurrondo)?

- ¿Cuántas personas reciben actualmente la

jasotzen dute Otorduak programaren laguntza? Zein da Intxaurrondon azken urteetan izandako funtzionamendua, eta horretaz egiten den balorazioa? Itxaron zerrendarik ba al da?

– Nahikoa izango al da aurrekontuak izan duen zabalpena bigarren auzo batean ere programa garatu ahal izateko? Pertsonarekin?

Donostian, 2026ko apirilaren 9an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

María Jesus Idoeta eta Izar Hernando andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

ayuda del programa Otorduak en Intxaurrondo? ¿Cuál es el funcionamiento llevado a cabo en Intxaurrondo en los últimos años y la valoración que se hace de ello? ¿Hay lista de espera?

– ¿Será suficiente la ampliación presupuestaria realizada para poder desarrollar el programa en un segundo barrio?

Donostia, 9 de abril de 2026

Izar Hernando Ibero
Concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen en este punto las Sras. Idoeta Madariaga y Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**8.- Iradokizuna, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Donostian 1963ko kolpe militarra garaitu zen egunaren 90. urteurrenaren oroimena eta oroigarriari buruzkoa.**

Markel Ormazabal jaunak hurrengo iradokizuna azaldu du:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 137. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, iradokizun hau egiten dio Donostiako alkate Jon Insausti Maizterrenari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

1936ko irailaren 13an tropa frankistek Donostia hartu zuten, berrogei urte baino gehiago iraungo zuen erabateko errepresio eta jazarpen aldiari hasiera emanez.

Donostiako Udalaren ekimenez, 2017an, irailaren 13a Donostiako Memoria Historikoaren Eguna izendatu zuten. Harrezkero, urtero, altxamendu frankistak eragindako gerraren eta ondorengo diktaduraren ondorioak jasan zituzten donostiarrei omenaldia egiten zaie egun horretan.

Aurten 90 urte beteko dira 1936ko gerrari hasiera eman zion estatu-kolpe saiakeratik. Eta urteurren honek aukera paregabea eskaintzen digu Donostiarentzat ez ezik Gipuzkoa osoarentzat ere benetan garrantzitsua izan zen beste data bat

**8.- Sugerencia, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la memoria y recuerdo del 90 aniversario del día que se venció el golpe militar de 1936 en San Sebastián.**

El Sr. Ormazabal Gaztañaga expone la siguiente sugerencia:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente sugerencia al alcalde de San Sebastián, Jon Insausti Maizterrena, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El 13 de septiembre de 1936, las tropas franquistas tomaron San Sebastián, iniciando un periodo de total represión y persecución que duraría más de cuarenta años.

A iniciativa del Ayuntamiento de San Sebastián, en 2017 se declara el 13 de septiembre como Día de la Memoria Histórica de San Sebastián. Desde entonces, cada año se realiza un homenaje a las y los donostiarras que sufrieron las consecuencias de la guerra provocada por la sublevación franquista y de la posterior dictadura.

Este año se cumplirán 90 años del intento de golpe de estado que dio comienzo la guerra de 1936. Y este aniversario nos ofrece una oportunidad única para recordar otra fecha muy importante no solo para San Sebastián sino

gogoratzeko: uztailaren 28a, Loiolako kuartelak errenditu ziren eguna. Bestela esanda, Donostian altxamendu frankista garaitu zen eguna.

Loiolako kuartelek paper garrantzitsua jokatu zuten estatu kolpe saiakeran: altxamendu frankistaren gune nagusia izan ziren Gipuzkoan. Leon Carrasco Amilibia koronelaren erabaki ezak hasieran zalantzak sortu bazituen ere, uztailaren 21ean Loiolako militarrak Donostia hartzera atera ziren. Kolpistek hiriko hainbat eraikin eta puntu estrategiko okupatu zituzten, hala nola Kasinoa (egungo Udaletxea), Komandantzia Militarra, La Equitativa eraikina eta María Cristina Hotela. Hurrengo egunetan borroka gogorrak izan ziren. Uztailaren 23an militarrek atzera egin behar izan zuten, hiriguneko posizioak utzi eta berriro kuarteletara itzuliz. Lau eguneko setioaren ondoren, goarnizioa uztailaren 28an errenditu zen.

Kuartelen errendizioa Urdintzu zubian gauzatu zen. Rafael Pikabea (PNV), Juan Antonio Irazusta (PNV), Miguel Amilibia (PSOE), Jose María Lasarte (PNV) eta Manuel Irujo (PNV) Gipuzkoako Gorteetarako diputatuak, Jesus Larrañaga (PCE) eta Augusto Pérez Garmendia komandantearekin batera, José Vallespín teniente-koronela, León CarrascoAmilibia koronela eta Enrique Erce agintari militarrekin bildu ziren.

Gertaera hura mugarria izan zen. Donostian kolpe militarra erabat garaitu zen eta Gipuzkoa Errepublikari leial mantendu zitzaion, hilabete batzuengatik besterik ez bazen ere.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako IRADOKIZUNA egiten du:

• Donostiako Udalak, gertaera esanguratsu honen 90. urteurrenarekin bat eginez, uztailaren 28an oroitzapenezko plaka bat jar dezala Urdintzu zubian, Loiola auzora ematen duen ibai bazterrean. Horretarako, aldez aurretik Aranzadi Elkarteari txosten-lan bat eskatzea, oroigarrian jaso beharreko edukia behar bezala zehazteko.

Donostian, 2026ko apirilaren 10ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Iñigo García jaunak hitz egin du puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

también para el conjunto de Gipuzkoa: el 28 de julio, fecha de la rendición de los cuarteles de Loiola. Es decir, el día de la victoria del alzamiento franquista en San Sebastián.

Los cuarteles de Loiola jugaron un papel importante en el intento de golpe de estado, constituyendo el centro principal del alzamiento franquista en Gipuzkoa. Aunque la falta de decisión del coronel León Carrasco Amilibia suscitó dudas iniciales, el 21 de julio los militares de Loiola salieron a tomar la ciudad. Los golpistas ocuparon edificios y puntos estratégicos de la ciudad, como el Casino (actual ayuntamiento), la Comandancia Militar, el edificio La Equitativa y el hotel María Cristina. Los días siguientes hubo grandes enfrentamientos. El 23 de julio los militares tuvieron que retroceder, abandonando las posiciones del centro y volviendo a los cuarteles. Tras cuatro días de sitio, la guarnición se rendió el 28 de julio.

La rendición de los cuarteles se materializó en el puente de Urdinzu. Rafael Pikabea (PNV), Juan Antonio Irazusta (PNV), Miguel Amilibia (PSOE), Jose María Lasarte (PNV) y Manuel Irujo (PNV), diputados a Cortes de Gipuzkoa, junto con el comandante Jesús Larrañaga (PCE) y Augusto Pérez Garmendia, se reunieron con el teniente-coronel José Vallespín, el coronel León Carrasco Amilibia y el mando militar Enrique Erce.

Aquel hecho supuso un hito. Supuso la victoria del golpe militar en San Sebastián; Gipuzkoa, en cambio, se mantuvo fiel a la República, aunque solo por unos meses.

Es por ello por lo que el concejal que suscribe presenta la siguiente SUGERENCIA:

• Que el Ayuntamiento de San Sebastián, coincidiendo con el 90 aniversario de este significativo acontecimiento, el próximo 28 de julio coloque una placa conmemorativa en el puente de Urdinzu, en la orilla que da al barrio de Loiola. A tal efecto, se solicitará previamente a la Sociedad Aranzadi un informe en el que se concrete adecuadamente el contenido a incluir en la placa conmemorativa.

San Sebastián, a 10 de abril de 2026

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Interviene en este punto el Sr. García Villanueva, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**9.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.**

**9.1 – Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, 2026ko Korrikari buruzkoa.**

Vanesa Velez andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Korrikari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Korrikaren 2026ko edizioa ez da aurrekoen desberdina izan, eta ETA talde terroristari eta talde horretako hiltzaileei babesa ematen zieten kartel eta argazkien presentzia izugarria izan da berriz ere. Gure ustez, onartezina da Udalak espazio publikoa erabiltzeko aukera ematea eta ekitaldi horren antolaketa finantzatzea. Edizioz edizio, ezker abertzaleari lotutako antolatzaileek eta elkarteek ekitaldi hori erabiltzen dute terrorismoaren biktimen memoria iraintzeko eta ETAren indarkeria terroristaren apologia egiteko.

Horregatik guztiagatik, hau da behean sinatzen duenak egiten duen

INTERPELAZIOA

1. Udalak zergatik eman ditu beharrezko baimenak Korrika 2026 garatu ahal izateko?
2. Udalak zergatik finantzatu du Korrikaren antolaketa?
3. Udalak zenbat diru bideratu du Korrika 2026ra, bai zuzeneko dirulaguntzen bidez, bai kilometroen erosketaren bidez?
4. Udalak zenbat diru bideratzen du AEKra, Korrika antolatzen duen erakundera, zuzeneko dirulaguntzen bidez?

Donostia, 2026ko apirilaren 10a.

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea".

Kerman Orbegozo jaunak eta Vanesa Vélez andreak

**9.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.**

**9.1 – Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la Korrika 2026.**

La Sra. Vélez De Pablos da por leída la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti, en la Comisión Espacio Público, Obras y Servicios, sobre Korrika.

JUSTIFICACIÓN

La edición 2026 de la Korrika no ha sido diferente a las anteriores y ha vuelto a haber una presencia abrumadora de carteles y fotografías apoyando a la banda terrorista ETA y a sus asesinos. Consideramos que es intolerable que se permita, desde el Ayuntamiento, el uso del espacio público y se financie la organización de este evento que, edición tras edición, es utilizado por organizadores y asociaciones vinculadas a la izquierda abertzale, para denigrar la memoria de las víctimas del terrorismo y hacer apología de la violencia terrorista de ETA.

Por todo ello, el abajo firmante formula la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Ayuntamiento ha facilitado los permisos oportunos para el desarrollo de la Korrika 2026?

2. ¿Cuáles son los motivos por los que el Ayuntamiento ha financiado a la organización de la Korrika?

3. ¿Cuánto dinero destina el Ayuntamiento a la Korrika 2026 mediante subvenciones directas o compra de kilómetros?

4. ¿Cuánto dinero destina el Ayuntamiento a AEK, organizadora de la Korrika, a través de subvenciones directas?

En San Sebastián, a 10 de abril de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

Intervienen en este punto el Sr. Orbegozo Uribe y la

hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Sra. Vélez de Pablos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**9.2 - Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, Jose María Elicegui Díezen omenezko plakaren egoera txarrari buruzkoa.**

**9.2 - Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el mal estado de la placa homenaje a Jose María Elicegui Díez.**

Vanesa Velez andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

"Talde Popularreko zinegotzi Tomas Pascua Martinek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau egiten dio Jon Insausti Masterrena alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak), Jose María Elicegui Díezen omenezko plaka egoera txarrean dagoela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Jose María Elicegui Díez ETAren biktimaren omenezko plaka, Askatasunaren hiribideko 9. zenbakiko espaloian jarria, egoera txarrean dago eta estalduraren zati bat altxatuta dauka.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal-gobernuak zergatik ez du plaka konpontzen, jatorrizko egoerara itzultzeko?

2. Udal-gobernuak ba al du hori egiteko asmorik? Hala bada, noiz? Hala ez bada, zergatik ez?

Donostia, 2026ko martxoaren 31

Tomas Pascua Martin
Udal Talde Popularreko zinegotzia".

Ana López eta Vanesa Vélez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

La Sra. Vélez De Pablos da por leída la siguiente interpelación:

"Tomás Pascua Martín, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Maisterrena, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre el mal estado de la placa homenaje a Jose María Elicegui Díez.

JUSTIFICACIÓN

La placa homenaje a Jose María Elicegui Díez, víctima de ETA, situada en la acera del número 9 de la Avenida de la Libertad, se encuentra en mal estado, con parte del revestimiento desprendido.

Por estos motivos, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Gobierno Municipal no restaura la placa para devolverla a su estado original?

2. ¿Tiene el Gobierno Municipal intención de hacerlo? En caso afirmativo, ¿cuándo? En caso contrario, ¿por qué motivo?

San Sebastián, a 31 de marzo de 2026

Tomás Pascua Martín
Concejal del Grupo Municipal Popular".

Intervienen en este punto las Sras. López Loiarte y y Vélez De Pablos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

--------------

Eta bestelako aztergairik ez dagoela, Batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko hamabiak eta

Y no habiendo más asuntos, el Presidente declara terminada la sesión a las doce horas y

hogeitahiru minutuan bilkura amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztiaren FEDE EMATEN DUT.

veintitrés minutos de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, LA SECRETARIA, DOY FE.

O.E./Vº Bº
BATZORDEBURUA / EL PRESIDENTE

Iñaki Gabarain Gaztelumendi